

Juan San Martin (1922-2005)

Gillermo ETXEBERRIA

- Berri txarra jaso genuena urte honetako maiatzaren 30ean. Hain zuzen, Eibarko herri osoa, Udala buru zuela Omenaldia jasotzera zihoan unean joan zitzaigun Juan San Martin. Jakin bagenekien osasunez ez zegoela ondo, baina ez genuen espero hainbesterialnokoa izango zenik.
- Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak bere hitza eman zuen, alegia, Eibarren egongo zela Omenaldi barnean. Mahaian parte hartzeko jende askotxo zela-eta, gure zeregina egun horretarako Juan San Martinen artikuluen antologia argitaratzea izan zen.
- Antologia hori egiteko, Juan San Martin berarekin hitz egitea izan zitekeela onena eta, jarri ginen harremanetan Oier bere semearekin. Honek ilusio handiz hartu zuen parte zeregin horretan. Azken finean, bera izan da argitaratu genuen antologiaren egile nagusia.
- Antologia hori egiterakoan, bizpahiru ardatz nagusi izan genituen gogoan. Lehenengo, San Martin jaunak *EGAN literatur aldizkarian* idatzitakoak izan behar zuten. Izan ere, San Martinen artikuluen presentzia etengabea izan da aldizkaria honetan. Hasi 1960. urtean eta ia azken urtera arte. Bere azken artikulua 2001eko *EGAN*en azken alean aurki dezakegu. Idatzitako lan ugariak, gai eta era askotarikoak izan dira, batzuek laburragoak, besteak luzeagoak. Izan ere, Juan San Martin, entziklopedia bat zen bere jakitatean. Hitz egin zitekeen berarekin hainbat eta hainbat gaiez: euskara, ohitura, arte, historia, literatura, hizkuntza... Hainbat eta hainbat aldiz joan ginen Euskaltzaindiko egoitzara, orakulo baten gisara kontsultak egitera.

- Argitaratutako antologiak, ez du Juan San Martinen izaera guztia, gai guztiak adierazi nahi. *EGAN*en argitaratutakoen artean egina da, besteak utzita, urteen kronologia mantenduaz eta artikulu laburrenak utzita. Izan ere, denek batera mila bat orri osatzen baitzuten. Liburu batentzat, eta antologiarentzat, gehiegi, noski. Guk, liburuan ikus daitekeen bezala, 200 bat orri exkaxekoa osatu dugu.
- Esan behar da, bestalde, azala eta kontrazala Juan San Martinen beste seme batena dela. Hark ere atsegin handiz eskaini zigun bere lana, zoragarria ikus dezakezuenez.
- Izan ere, Juan San Martin, euskara batuaren ibilbide luze eta neketsuan, puntan egon den pertsonaia izan da. Hasi Arantzazuko Bilera famatutik, 1968. urtean eta gero eman diren pausu guztietan, Euskaltzandiko idazkari zenez, bere parte hartzea aktiboa izan da. Era berean, euskara batura zihoan ildoan, bere artikuluak ere ildo beretik mantendu zituen. Artikulu hauetan ondo gauzatua dago bere baturanzko prozesua.
- Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak eta *EGAN* aldizkariak asko eta asko zor dio Juan San Martini. Izan ere, Juan San Martinek artikuluak asko idazteaz gain, zuzendari izan zen hainbat eta hainbat urtetan. 1983. urtea ezkeroztik, behin Irigaray eta Arrue sortzaileak hilda, *EGAN*en erredakzioa Mitxelenaekin batean, Juan San Martinen eskuetan geratu zen. Bien izena agertzen bada ere, badakigu, bera zela nagusiki aldizkariaren arduratzen zena. Eta hartan jarraitu zuen, harik eta 1989. urtean Ararteko izendatu zuten arte. Ararteko izendatze horrek eskatzen zion ardurak ez zion denborarik ematen aldizkariaren ardura aurrera eramateko. Berak zuzendaritza lana utzi bazuen ere, artikuluak ez zirela faltako agindu zigun.
- Eta, hala izan da, harik eta osasun arazoek eta, azkenik, zendu izanak aukera hori kendu dion arte.
- Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, *EGAN* literatur aldizkariak atsegin handiz gogoratzen du Juan San Martin ekarpena eta pertsona.